

Noaia!!!

www.noaia.com



Sinadura bilketa ospatzeko, jaia Zubietan



**Aimar Irigoien,
jaietako txapeldun**

RESTAURANTE
Castillo
HOTEL & RESTAURANTE
Castillo

2007ko kuota...

Kaixo noauakide!
2007ko kuota kot...
dugula ist...

2009ko uztaillaren 3an

Kaixo noauakide!
2009ko kuota kobraketa, uztaillaren 15ean hasiko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean bezala, 36€takoa izango da. Beraz, 36€ kobratuko zaizue datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurtan ere.

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrantean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Hauxe da gure kontu korranteko zenbakia:
Gipuzkoa Donostia Kutxa: 2101 0069 15 0010543064

Besarkada bat eta hurrengo arte.

OHARRA: Kutxa artan, zuzeneko ordainketak egiteko erabiliko diren diruak, gure ordainketa egiteko erabiliko diren diruak ez dira. Kutxa artan, zuzeneko ordainketak egiteko erabiliko diren diruak, gure ordainketa egiteko erabiliko diren diruak ez dira.

I. Ukkuzola ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan) **LASARTE**
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131



**antenas
Telemar**

266 egun falta dira!!!

t d t

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
antenastelemar@terra.es




Albistea iruditan !!

Trabak gaintitzen, bideak errazten

Patri jatetxeko terraza duzue irudian. Zein da albistea ba, argazki honetan? Galdetuko duzue. Xehetasunetan erreparatzen baduzue, sarbidea gurgildun aulkientzat egokitua izan dela konturatuko zarete. Ez hau bakarrik, baita tabernarako sarbidea ere. Duela astebate NOAUA!ra deitu zuen herritar batek, Patrikoek egindako lana eskertu nahi zuela adieraziz.

Trabak handiak dira oraindik, baina horrelako ahaleginei esker, gero eta errazagoa izango da irisgarritasuna bereziki gurgildun aulkietan edota bestelako ezintasun fisikoak dituzteentzat.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ATEZ ATEKO INFORMATZAILEAK **6. OR.**

FESTETAKO ARGAZKIAK **9. OR.**

KIROL TALDEEI AITORTZA **14. OR.**

LARUNBATEAN, JAIA ZUBIETAN **17. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



IDOIA TORREGARAI

Ahaztezina

Egin ariketa hau. Jarri mahai gainean etxean topatu ditzakegun hainbat gauza. Boligrafoa, sagarra, edalontzia, aldizkari bat, eguzkitako betaurrekoak, mugikorra eta beste zerbait. Begiratu dena patxaraz, eta saiatu buruan gordetzen. Ederki. Orain, ahaztu sagarra dagoela. Itxi begiak. Aukeratu dituzun beste gauza guztiak gogoratu ditzakezu, sagarra ezik. Saiatu. Sagarra ahaztu nahi duzu. Ba hori da hain juxtu egin dezakezun okerrena. Sagarra begien aurrean agertzen zaizu, handi handia. Ezin burutik kendu.

Ba gauza berdina gertatzen da zerbaitetik edo norbaitetik obsesionatzen gaituenean. Zerbait ahaztu nahi izatea gogorapen horren mendeko izateko biderik zuzenena da. Obsesioa. Hiztegiaren arabera, ideia finko batek sortarazitako gogo-nahasmendua; burura etengabe etor-

tzen den ideia. Ideia bat ezabatzeko aginduak ideia hori berorri piztu egiten du. Onena irudi hori lasai pasatzen uztea litzateke, lainoak zeruan pasatzen diren bezala. Denborak bakarrik dauka ideia hori ezabatu edo lausotzeko boterea.

Gure artean dagoeneko ez dagoen pertsonarena obsesioa bilakatzen zaigu askotan. Behin eta berriro etortzen zaigu berarekin izandako elkarrizketa hura. Esan zeniona. Eta batez ere esan ez zeniona. Hitzek kateatu egiten gaituzte. Damutu egiten zara. Elkarrizketa birtuala berregiten hasten zara behin eta berriz. Dutxan zauden bitartean. Gidatzen zoazenean. Gurpil zoro horretatik atera nahi zenuke; zamatzen zaituen pisua arindu nahiko zenuke askotan. Bestetan, ahazteak beldurra ematen dizu.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Herri giroa

Urtean zehar izaten dira egunak halako giro bereziak hartu eta herritarrak blaitzen gaituena. Gabonak, pilota finalera iristen garenean, aparteko zerbaiten protagonista bilakatu garenean edota herri-festak. Horrelakotan, berariazko bihotzondokoa sumatzen da jendearen artean, adiskidantza nagusitzen da, aspaldi ikusi gabekoak agurtu eta berriak trukutzen dira eta, arazoak zertxobait alboratuta, arnasberritzen gara. Hitz batean, herri-giroa sortzen da.

Han-hemenka entzundakoarekin eta zuzenean egiaztatu dudanaekin, aurtengo Santixabeletan partehartze handia izan delakoan nago. Herritar ugari ibili gara kalean eta jai-batzordean lanean buru-belarri aritu direnei esker eskaintza

askotarikoa izan dugu herri-giroaz gozatzeko.

Maila pertsonalean asebetetzeaz gain, horrelako egunek esparru kolektiboan ere eragin handia izaten dute. Indiar esera zahar batek dio lurra ez dela bertan bizitzen diren herritarren jabetzako; alderantziz, herritarrak direla lur horren jabetzakoak. Horrelako zerbait gertatzen da herri-giroak harrapatzen gaituenean. Erkidego berekoak sentitzen gara; usurbildarrago sentitzen gara, harrotasun puntuak nabari egiten du gora.

Era zabalago batean herriaren eta herritarren sinbiosi hori Euskal Herrira hedatzen dugularik, hizkuntzak, kulturak eta Herri bat izateko dugun borondate irmoak batzen gaituen herritartasu-

na sentitzen dugu.

Amaitu berri diren Santixabeletako hainbat ekitaldietan biak sumatu ditut, usurbildartasuna eta Euskal Herritartasuna, baina era berezian larunbatean preso ditugun herritarrak gogoan izan ditugularik. Haiek ere herritar ditugu; are, herriminez jotako usurbildarrak, minak jotako Euskal Herriaren jabetzakoak... Ezkutatu, ukatu, baztertu eta ahaztu ditzagun hamaika ahaleginen gainetik, herritik urrun, oso urrun baldin badituzte ere, gu bezalaxe herri-giroaren amaraunean harrapatuta daude; gu bezalaxe usurbildar, Herrikide dira eta harro daudegaude.

Arantxa Manterola

Herri kontsultarako galdera adostu da

Atez ateko bilketa sistema iragarri zenean, honen aurkako plataforma bat osatu zen herrian. Herri kontsulta bat egiteko eskaera bideratu zuten udaletxean. Bada argitu da herri galdeketa egingo den galdera: Zein bilketa sistema nahi duzu Usurbilerako? Galdera honek hiru erantzun posible izango ditu: atez ate; orain arteko edukiontzien sistema; orain arteko edukiontzien sistema gehi bosgarren edukiontzia organikoarentzat. Hala onartu zen azken osoko bilkuran.

Atez atekoa martxoaren 16an jarri zen martxan, eta emaitzak uste baino hobekak izan dira; herritarren gehiengo zabal batek bilketa sistema berriarekin bat egin duen seinale.

Hala ere, herri galdeketa proposamena, mantso bada ere, aurrera doa. Nekazaritza eta Ingurumen batzordean landu zen duela aste batzuk eta, azken



AZKEN OSOKO BILKURAN ONARTU ZEN HERRI GALDEKETARAKO GALDERA.

Udalbatza plenoan, herritarrei zer galde-tuko zaien onartu zen. Aldamenean duzue EAE-ANV, Aralar eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu den galdera.

Galdeketa-data, zehaztu gabe

Herri galdeketez prozedura administratibo bat jarraitu behar dute, udal araudia gainditzen duen prozedura. Beraz, ezin esan noiz egingo den herri galdeketa. Urrats garrantzitsua eman da behintzat, galdetu beharrekoa zehaztea.

Hau izango da egingo den galdera

Zein bilketa sistema nahi duzu Usurbilerako?

1. Atez ate
2. Orain arteko edukiontzien sistema (lau edukiontzi)
3. Orain arteko edukiontzien sistema + bosgarren edukiontzia organikoarentzat

Ika-mika !!

Horrelakoa da 'El Diario Vasco'-n larunbatean azalean ateratako berria: harrigarria eta xelebrea. Nonbait, Zarautzen eta Azpeitian zabor organiko gehiago biltzen dute pertsonako Usurbilen baino. Hor, bosgarren kontenedorea erabiltzen dute, hemen, aldiz, atez ateko sistema. Hor, aukera izaten dute zabor organikoa bosgarren kontenedorean uzteko, edo, zorrotzak ez badira, bestelako zaborra biltzen duen kontenedorean. Hemen, aldiz, ez dago aukerarik: organiko guztia konpostatzera bidaltzen da. Horregatik iruditzen zait harrigarria dela berri hori: edo usurbildarrak oso traketsak eta zikinak gara, eta zabor organiko pilo bat ari gara botatzen nonbait, edo zarautzarrak eta azpeitiarrak janari pilo bat botatzen dute zakarrontzira. Izan ere, lehenengo aukeraren arrastorik inon ikusten ez dudanez (non dago falta zaigun zabor organiko usurbildar guzti hori, atez ateko kamioak biltzen ez badu?), bigarrenak izan beharko du zenbaki horien zergatia azaltzen duena. Hala

bada, berria xelebrea da, eta xelebrekerien txokoan ipini behar zuten, ez egunkariaren azalean.

Hala ere, hain datu xelebrek sen onaren kontrakoak dira, eta, aireratu baino lehen, errepasatu eta egiaztatu beharko lituzkete, bada ez bada ere. Adibidez, zabor organikoaren kopurua pertsonako kalkulatzeko, kontuan hartu al dute usurbildar askok sortutako hondakinak ez direla joaten Lapatzera, autokonpostatzen dutelako? Beste alde batetik, txostenaren datuak aurtengo lehenengo 6 hilabetetan Lapatzeko plantan jasotako zaborrari dagozkio, baina Usurbilen hiru hilabete bakarrik daramagu hara eramaten hondakin organikoak. Bosgarren kontenedoreko herrien 6 hilabeteko zabor kopurua konparatu ote dute Usurbilen 3 hilabete-an bildutakoarekin? Horrela balitz Usurbilgo tasa pertsonako argitaratutakoaren bikoitza litzateke ... Edo horrelako akats bat dago datu horien atzean, edo, benetan, janari asko botatzen dute Zarautzen eta Azpeitian. Hemen zer edo

ezer ez dator bat, txosten horrek dioena beste hainbat tokietan egindako txosten askok diotenaren kontrakoak dela kontuan harturik (bosgarren kontenedorea erabiliz emaitzak askoz pobregoak direla, alegia).

Edozein kasutan, datu horiek nahiz eta xelebrek guztiz zuzenak direla onartuta, ezin da ondorioztatu bosgarren kontenedoreko sistema hobe dela atez atekoa baino. Hori esateko, sortzen den zabor birziklaezinaren kopuru osoa alderatu behar da, eta ez zabor organikoa soilik (papera, ontziak eta beira, organikoaz gain). Eta, dakigunez, atez ateko sisteman askoz gutxiago sortzen da bosgarren kontenedorearekin baino. Txosten xelebre honek ez du hori ukatzen, eta ezagutzen ditugun beste txosten guztiek baieztatzen dute emaitza hobekak dituela atez atekoak. Esan dezagun argi: atez ateko sistemarekin ez dugu erraustegirik behar, eta bosgarren kontenedorearekin, bai. Gure osasunak (eta patrikak) eskertuko digu.

Atez ateko informatzaileak, zalantzak argitu eta informatzen

Atez ateko sistemarekin, gaikako bilketak %80-ko muga gainditu berri du. Aipatu emaitzaren giltzarrietako bat azken urtebetean auzoz auzo, eta sektoreka herritarrei eskaini zaien etengabeko informazioa izan da. Lan talde bat arduratu da zeregin horretaz; tartean, Sutegiko bulegoan aurki ditzakegun informatzaileak. Herritarren zalantzak argitzen lagundu, atez ateko bilketa puntuak aztertu edota autokonpostatze egitasmoa zer moduz doan aztertzen ari dira. Lan anitzetan murgilduta beraz.

NOAUA! Duela gutxi kaleratutako datuen arabera, %80ko muga gainditu du gaikako bilketak. Espero izateko moduko emaitza al zen zuentzat?

Amaia Martiarena. Jakin genuenean, egindako lanak merezi izan duela genion. Barrutik bizitzen ari garen zer-bait da.

AMAIA MARTIARENA

“Meritu handia dute hasieran sinetsi ez arren, ondo egiten ahalegindu diren guztiek. Posible dela jabetu dira”

Irati Portu. %80a niretzat muga utopikoa zen. Noizbait harrapatuko dugula genion. Bigarren hilabeterako muga gainditu badugu, ondo ari garen seinale.

N. Jarduera batean baino gehiagotan buru-belarri zabilzate; besteak beste, autokonpostatze egitasmoaren funtzionamendua aztertzen. Zer balorazio egin dezakezue?

I. P. Azterketak bi helburu ditu. Batetik jarraipena egitea, konpostatzen ari diren gehienak berriak dira eta apur bat galduta daude. Ondo ari diren jakin nahi dute, arazoren bat edo beste sortu



ATEZ ATEKO INFORMATZAILEAK, KUBOAK ESKUETAN DITUZTELA.

zaio baten bati. Arazo horiek konpon-tzea litzateke helburuetako bat eta bestalde, guk ere datuak jasotzea konpostatzen ari garen zati hori zer den jakiteko. Alde batetik, Lapatxen konpostatzen den materia organikoa dago, eta bestalde, jendeak etxean konpostatzen duena. Datu horiek guztiak jasotzen ari gara, emaitza zehatzagoak izateko.

N. Herritar autokonpostatzaileek zer diote?

A. M. Egia esan, uste genuena baino baikorragoa izan da. Oro har, jendea oso gustura dago. Askoz erosoagoa dela diote. Etxe ondoan dute gainera. Eta oro har arazorik ez dute izaten. Bestalde, aipatzekoa da zer nolako harrera ona egiten duten.

I. P. Ilusionatuta daude. Atentzia ematen dit, konposta gailua irekitzen dugun uneak. Jendeak zer nolako ilusioa agertzen duen, hortik aterako denarengatik. Lur hori beraiek egiten ari dira.

N. Aspaldi hasi zen zuen lana. Urtebete honetan guzak asko aldatu

dira. Hasieran zuengana jotzen zutenen kezka eta gaur egungoak zerikusirik ez dute izango?

A. M. Hasierako denen kezka usaina izaten zen. Nola izango dugu astelehentik ostegunera organikoa etxean? galde-tzen zuten. Eta orain, kezarik ez da egon, inor ez da ezer esatera etorri. Lehen ezjakintasuna zegoen, oraindik erreal ez zen, utopia zen zerbaiten gainean lanean ari ginen. Zeuden kezka horiek guztiak, ezin genituen landu. Gure hitza besterik ez zegoen. Orain aldiz, gauza erreal batekin ari gara lanean. Arazorik baldin badago, gugana etorri eta gu joaten gara. Meritu handia dute bestalde, hasieran sinetsi ez arren, ondo egiten ahalegindu diren herritar guztiek. Posible dela jabetu dira.

I. P. Jendeak zuen irudia, zikina izango zela eta beldurra zen nagusi. Gerora pertsona batzuk oker zebiltzala esatera etorri dira bulegora eta gauza handia da hori. Gaur egun jendeak nola ondo egin jakin nahi du, saiatzen ari dira eta oso ondo gainera. Eredugarria izaten ari da.

“Oraindik lan asko dago egiteko”

NOAUA! Martxoaren 16an jarri zen atez atekoa martxan. Bezperak eta hasiera eguna bera nola bizi izan zenituzten?

A. M. Astebete lehenago, herrian pasatzen nintzen lekutik isiluneak sortzen ziren. Gaizki pasa genuen. Martxoaren 16an, lehen orduetan lan asko izan genuen; bi pertsona telefono deiei erantzuten, bulegoan jendea oraindik ontziak hartzeko... Laugarren egunerako egoera segituan baretu zen.

I. P. Animateko edo kritikatzeko, baina denek zeresanik bazuten. Martxoaren 16an eguerdian kristoren pisua kendu genuen gainetik. Gogoratzen naiz, tabernara joan ginela eta telebistan ikusi genuen atez ateko bilketaren hasierari buruzko erreportajea. Orduan, pisua guztia kendu genuen. Okerragoa izan zen, hasi aurreko astea, atez ateko lehen egunak baino.

IRATI PORTU

“Herria zikinagoa egongo zela zioten atez atekoaren aurkakoei, baina herria lehen baino garbiagoa dagoela ikusten dut”

N. Atez atekoa martxan jarri eta %80ko muga gainditu arren, informatzaileen lana ez da hemen amaitzen?

A. M. Lan asko dago. Kanpotik informatzaileok lana bukatu dugula

dirudi, baina oraindik egiteko asko dago. Udal ordenantza berri bat jarri da, tasak beste batzuk izango dira. Lantzeko datu base bat dugu, eta hor daude eguneroko deiak. Bulegoan beti saiatzen gara norbait egoten, nahiz eta kanpoan lan asko egon. Jendeak arreta behar du, eta une bakoitzean konpondu behar izaten dira hainbat arazo. Horri ere denbora asko eskaini behar zaio.

N. Atez atekoak mesede baino kalte gehiago ekarriko zituela uste zuten batzuek. Martxoaren 16az geroztik, atariz atari ibiltzeko aukera izan duzue. Zein da errealitatea?

I. P. Estrategikoak direlako, gehienak begi bistan, puntu batzuetan zabor poltsak ikusi izan dira, gehienetan nahita utzitakoak direla esango nuke nik. Bestela, oro har, herria lehen baino garbiagoa dagoela ikusten dut. Ez dira ikusten lehenagoko edukiontzi puska haiek, katuz josiak, zikinkeriarekin kanpoan... Herria zikinagoa egongo zela zioten atez atekoaren aurka zeuden herritarrek. Orain herria zikintzen dabilzanak haiek izan daitezkeela pentsatzeak kristoren amorrazioa ematen dit. Lotsagarria iruditzen zait.

N. Informatzea zen zuen helburua. Egitasmoa ondo bideratzeko giltzari garrantzitsua zalantzarik gabe?

I. P. Udalaren eta herritarren arteko zubia izan gara gu. Udalekoa herriari eta herrikoa Udalari helarazteko.

A. M. Atez atekoaren egitasmoaren barruan zati garrantzitsuak daude;



ATEZ ATEKO INFORMATZAILEENA BEZALA, BILTZAILEEN LANA ERE GARRANTZITSUA IZATEN ARI DA.

Udala eta bertako teknikariak, informatzaileak eta biltzaileak. Hiru zati oso garrantzitsuak dira. Une bakoitzean, zati bakoitzak bere garrantzia izan du. Hasiera batean, teknikariak egon dira egitasmoa lantzen, informatzaileen lana ere garrantzitsua izan da. Eta biltzaileena zer esanik ez.

N. Bulegoan jaso al duzue beste herrietako deirik?

I. P. Herri askok informazioa nahi dute. Gero benetan pausoak nortzuk eman nahi duten, ikusiko da.

Informazio gehiago:

Web: www.usurbil.net/atezate

Tf: 900 776 776

WWW.NOAUA.COM
USURBILGO ATARIA

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmial.com
Golz argi etxea 37, KALEZAR

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, I.EBK 943372937 • 659602789

Hiru mozio onartu ziren azken osoko bilkuran

Mozioek tarte nabarmena izan zuten ekainaren 30eko osoko ohiko bilkuran. Hiru testu bozkatu ziren; bat, Usurbilgo Herri Batzarraren izenean aurkezturikoa, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarren atxiloketa hizpide zuena. Beste biak, Amaya Goyaran zinegotzi sozialistak aurkeztu zituen; Eduardo Antonio Puelles Garcíaren aurkako atentatua eta emakumeen aurkako indarkeria ardatz zituenak. Hirurak onartu ziren.

Atxiloketen inguruko mozioa

Astigarragan Ainara Vazquezekin batera, Usurbilen Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga atxilotu zituzten ekainaren 23an. Poliziaren eskuetan inkomunikatuta egon ziren egunetan, presio, kolpe eta mehatxuak salatu zituzten. Hain zuzen, atxiloketa garaia ardatz duen mozioa onartu zen ekainaren 30eko osoko ohiko bilkuran. Inkomunikazioa indargabetzea, eta atxilotuen berri izateko ahaleginak egitea eskatzen zen testuan. Baita tratu txar edo torturak jasan izana salatuko balute, salaketa horiek ikertu eta ardurak zehaztea ere. Mozioak elkarrizketa eta negoziazioa giltzarritzat jotzen ditu, errepresioa alboratu eta gatazka politikoa konpontzeko.

EAren babesarekin

Aurkeztutako testuaren alde bozkatu zuen gobernu taldeak eta EAko udal ordezkariak. Aurka gainerakoek; Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EEko udal ordezkariak. Gobernu taldetik adierazi zenez, “adostasunaren bila prestatutako testua da”. Egoeraren larritasuna azaltzeaz gain, gertaturikoa gainditzeko bidea eta borondatea adierazten zuela gaineratu zuten.

Arrigorriagako atentatuaz

Talde sozialistak aurkeztutako testuak igaro den ekainaren 19an Arrigorriagan Eduardo Antonio Puelles García polizia nazionala ETaren atentatuz hil izana salatzen du. Bi puntuko mozioan, horrez gain, senitarteko eta lankideei elkartasuna adierazten zaie. Testua babestu zuten, PSE-EE, EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariak. Gobernu taldea abstenitu



ATXILOTUEI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO MOZIOA ONARTU ZEN OSOKO BILKURAN.

zen eta Aralarko zinegotziek aurka bozkatu zuten.

Udal gobernuaren ustez, “egoera politiko baten ondorio”

Udal gobernu taldetik zehazten zenez, “mozio honen norabidea, oso alde batekoa da”, ez baita egoera isolatu bat, egoera politiko baten ondorioa baizik. Horregatik, “ekintza hauek guztiak bukatu beharko lirateke”, gaineratu zuten. Gatazka politikoari alde guztietatik heldu beharra azpimarratzearekin batera, ezberdintasunak gainditu eta erabakitze eskubidetik abiatuta indarrak metatzea garrantzitsutzat jo zuten.

Aralar, indar metaketaren alde

Aralarrek aparteko adierazpen bat irakurri zuen. Bertan zehazten denez, “Eduardo Puellesen hilketak irmoki gaitzesten da”. ETari borroka armatua bertan behera uztea eskatzen die. Bi estatuei aurre egiteko tresna gisa, desobediencia zibila planteatzen zuten, eta aipatzen zuten, “indar metaketa beharrezkoa da”. Azken atxiloketen harira, Lasagabasterrek, Urangak eta Vazquezek pairatu duten inkomunikazio egoera salatu zuten, euren giza eskubide guztiak errespetatu zitezela eskatzearekin batera.

EAJ, giza eskubide guztien alde

Bide beretik zetozen Iñaki Illarramendiren hitzak ere. Giza eskubi-

de guztien aldeko aldarrikapena egin zuten, atxilotuen errugabetasun printzipioa eta eskubideak betetzea galdegiteaz gain. Alderdien Legea eta ETaren jardura soberan daudela esatearekin batera, bere hitzetan, “edozein gatazka konpontzeko, bide elkarrizketatua sinisten dugu”.

Guatemalako emakumeekin bat

Udalbatza osoak aho batez onartu zuen, Amaya Goyaranek Guatemalako emakumeek jasan ohi duten indarkeria salatzen duen mozioa. Bertako emakume elkarteek burutzen duten lanarekin bat egin, emakumeen aurkako indarkeriari lotuta indarrean den legedia eraginkorra izatea galdegin eta biktima guztiei elkartasuna adierazten zaie. Mozioak 1978-1983 urte artean Guatemalako ejertzitoak hainbat komunitateren aurkako erasoaldia gogorarazten du. Gatazka hartako biktimak herritarrak, baina bereziki emakumezkoak zirela adierazten da. Orditik, emakumezkoak hirugarren mailako hiritarrak izan eta tratu txarrak pairatzen dituztela salatzen da.

Santixabel jaiek gero eta zaletu gehiago dituzte

Aurtengo jaiak nolakoak izango ziren iragartzen hasita, denetariko aurreikuspenak entzuten ziren Santixabelei ekin aurretik. Ezin jakin zenbateraino bete diren, baina aurtengoak definitzekotan, jendetsuak izan direla argi geratu da.

Haurrak, gazteak, helduak, bertakokak, beste txokoetatik etorritakoak... Egunez, gauzez, jai egunek iraun duten artean kamera bat grabatzen jarri izan balitz, edota atera diren argazkietan, irudi bera errepikatuko da. Jendea kalean, jendea ekitaldietan parte hartzen, jendea bisitan, jendea hara, jendea hona... Aurtengo Santixabelek aurreko urteetan baino jende gehiago erakarri dute jai girora. Uztailearen 1ean, herri afari, danborrada eta txupinazotik hasi eta igaro den igande gauera arte, azken urtean herriko gai izarra bihurtu den atez ateko gaiari lotutako maskota, organikoa biltzeko ontzia, agurtu arte.

BISITARI UGARI

“Larunbatean
jende andana
hurbildu zen herrira”

Arratsaldeko bostetan taberna inguruetan bildu izan ohi den jendetza, Santixabel jaietako goizaldeko ordu berean kalean zebilen parrandazale kopuruarekin alderatzen duenik izan da. Gauzez ibili baita jendea bertso saio, batukada edota musika emanaldi desberdinetatik gertu. Baita egunez ere. Ikusi besterik ez, Haurren Eguneko ekitaldiak, frontoian, Dema Plazan, jaietako ekitaldi desberdinak ospatzeko berreskuratu den udaletxe aurreko plazan edota Udarregi ikastolakoan izan duten arrakasta.



JENDETZA IBILI DA EKITALDI GUZTIETAN, BEREZIKI, ASTEBURUAN.

Estreinakoz larunbatez ospatu duten aurtun Haurren Eguna, baina uztailearen 4ak utzi zuen herritar andana erakarri zuen bestelako ekitaldirik ere; Askatasuna plaza bete zuen zikiro

jana eta, haren jarraian ospatu zen kantu kalejira Mutiko Alaiak taldearekin batera, edota preso dauden herritarrak gogoan izan zituzten omenaldi hunkigarria.

Partehartze handiko festak

Lehia aipatu eta hor ageri zaizkigu jaietako izen propioak; Aimar Irigoyen, Joseba Ostolaza eta Miren Urkiola harri jasotzen, zaldi lasterkarien erakustaldi ikusgarria edota Santixabel pilota txapelketako jokalaririk. Lehiazaleekin batera, Santixabelen zaletuen taldea osatzen duten parrandazaleez ezin ahaztu. Haietako asko oilasko biltzera irtendaokoak. Beste batzuk, aurtengoan ugari diren koadrilako kamiseta eta lepoko koloretsuak soinean zituztela kalean barrena. Denak helburu bakar eta berarekin, egunerokotasuna ahal den neurrian apur bat alboratu eta jai giroaz gozatzeko asmoz murgildu dira jaietan. Txozna eta tabernetan, plazan, frontoian... Kalean eta herritar artean.



Eskertu eta zoriontzekoa, jaiak gauzatzeko ahalbidetu duten guztien lan txukuna. Emaitza berriz, pozik egoteko modukoa.

Ibilian ibiliaz, jai-giroa txoko herrietara hedatu zuen “kalejira eroak”

Eguraldiak askorik lagundu ez arren, euriak ez zuen antzerkia, musika edota bertsoak osagai nagusi zituen kalejira eroaren estreinako edizioa zapuztu. Ibilbidea osatu zen, Txerrikikoen albistegi, koktel dastatze, edota erraldoi zein buruhandien kalejirarekin.

Ibiltaria, mugitua izan zen Santixabel eguneko arratsaldea. Goitibehera txapelketaren ondotik, udaletxeko plazara leku aldatu zen jai giroa. Lehen kalejira eroaren abiapuntura alegia. Aspaldiko hirukote ezagunaren itzulera ikusi ahal izan zen udaletxeko balkoian.

Txistek udaletxeko balkoitik

Goitibehera txapelketako sariak banatzen aritu baitziren, Elexpe, Paulino eta Loidi, txiste sorta kontatzarekin batera. Handik abiatu zen kalejira eroa, ibilbide osoan zehar gidari lanak egin zituzten erraldoi, buruhandi eta trikitilariak lagunduta.

Mimoa, bertsolariak...

Inork gutxi zekien zer gertatuko zen kalejiran zehar. Egia esan, ez zen espero



TXERRIKIKOEK HERRIKO ALBISTEEN BERRI EMAN ZUTEN, MIMO BATEN LAGUNTZAZ.

izateko modukoa Txerriki antzerki taldekoek eskaini zuten emanaldia, hobe esan, herrian gertatutakoaren inguruko azken orduko albisteen kontakizuna, mimo batek lagunduta. Ezta Dema plaza alderako balkoi batetik Gaztelumendi, euriari aurre eginez bertsoan entzun eta ikustea ere. Edota dantzariz mozarrotuta, herriko musika taldeak Mikel Laboa plazan eskaini

zuen emanaldia. Aipatzekoa baita, tabernarien parte hartzea. Kalejirako ekitaldiren bat ospatzeko egin zen geraleku guztietan eurek prestatutako koktela dastatu eta epaitzeko aukera izan zen. Afalordurako amaitu zen kalejira, jai ibiltaria, antolatzaileek prestatuak zituzten sorpresak ezagutarazita, eta jaietarako eskenatoki berri zein baliagarriak izan daitezkeenak deskubrituta.



Organoaren inaugurazioan, Joan Luis Atxega aritu zen organoa jotzen, Irriu abesbatzaren laguntzaz.



Preso, errefuxiatu, iheslariei egindako omenaldia hunkigarria izan zen, bereziki, senideek hitza hartu zutenean.

Aimar Irigoienek

Euskadiko Txapelketa irabazi zuen laugarrenez

Tamaina desberdineko lau harritar 51 aldiz altxatuta Aimar Irigoienek irabazi zuen harri handien Euskadi mailako txapelketa. Arerio argirik gabeko lehia izan zen, uztailearen 5ean Dema plazan jokatu zena.

Jarraian eskuratzen duen laugarren txapela jantzi ahal izan zuen Aimar Irigoienek Santixabeletan jokatu zen harri handien Euskadiko txapelketan. 200 kiloko errektangeluarra, 175 kiloko zilindroa, 150 kiloko kuboa eta 125 kiloko bola aisa jaso zituen, guztira 51 aldiz.

Faborito nagusia zen, modu nabarian proba ikustera hurbildu zirenen artean. Antolatzaileek emandako denbora tartean, harria azken aldiz jasoko zuela zirudienean, Aimar zirikatzea lortu eta altxaldi gehiago egitea bultzatu zuten.

Errezilgoa sasoiako zegoen eta erakustaldian agerikoa zen. Aurkariei dagokionez, lesioak nagusitu zirela azpimarratu behar da. Txapelketan parte hartzeak ziren bi lehiakide bizkaitar, Agirrek eta Lertxundik ezin izan zuten Dema Plazara bertaratu, lesioak tarteko. Eta proba hasi berrian, Aimar Irigoienek aurkari baka-



51 ALTXALDI EGIN ZITUEN AIMAR IRIGOIEN EK ETXERATU ZUEN.

rra, Joseba Ostolaza ere lesionatu egin zen. Ahal bezain beste saiakera egin zituen saioa amaitu artean. Guztira, 21 altxaldi, baina dagokion maila erakustea oztopatu zion bere egoera fisikoak.

Eta bi lehiakideen artean, Miren Urkiola. Jasoaldi bikainak burutu zituen, aurkaririk izan ez zuen erakustaldian. Herri kirolei eskainitako arratsaldean, dema saioarekin amaitu zen.

Euskadiko Txapelketa

HARRIAK	AIMAR IRIGOIEN	JOSEBA OSTOLAZA
200 kg errektan.	6	1
175 kg zilindroa	15	6
150 kg kubikoa	13	6
125 kg bola	17	8
Guztira	51	21



Dema plaza txiki geratu zen igandean. Irudian, Olasagasti idiei marruka.



Miren Urkiolaren saioa ez zen oharkabean pasa. Animo asko jaso zituen.

Sellorik gabeko gutunak

I

Aspaldi hontan bihurtu nauzu
postariaren bezero.
Buzoi barruan begiratzen det
esnatu eta goizero.
Karta ireki ta irakurriz
irri egin goxokiro!
Zu nolakoa zaren jakinda,
ezin besterik espero,
gutunak bihotz ondón jarrita
hartu ohi det lo gauero.

II

Oraindik ez du argitu baino
eguna dator oskarbi.
Negu erdian udaberriko
egusenti bat dirudi!
Gauéz izotzak estali ditu
soro, baso ta belardi.
Mendi arteko eguzki printzek
nahiz itsu utzi bi begi,
zure hitzetan maitasun asko
irakur dezaket garbi.

III

Ez dut gogoan noiz jaso nuen
bidali zendun lehena,
baina oraindik eskuetan det
iritsi zaidan azkena.
Hitz goxo eta maitasunezko
esaldiak dituen.
Korrespondentzi hau bihurtu zait
bizitzan gauz ederrena!
Zure gutunek alaitzen dute
nere egun tristeena.

IV

Zazpi bat urte izango dira
elkar urrundu ginela.
Erabakia hartu genuen,
ezin zen bizi bestela.
Hain dago triste, hain dago hotza
gure etxeko logela!
Amestu arren gauéz zu nere
ohean sartzen zarela,
ezta mantarik emango dunik
zuk adinako epela.

V

Zuk ez duzu nahi, edo agian
o(r)aindik ez zara kontura!
Plater huts batek, mahai buruan
ematen duen tristura.
Garai batean etorkizunak
hartua zuen itxura,
ilusioa, maitasuna ta
bizipozaren freskura...
Berriro ere nere ondora
nahi zinduzket berreskura.

VI

Gure arteko erlazioa
amildegiaren muga
ikusten hasi ginen unean
jarri ginen biok dudán!
Aipatu arren, jarri dezagun
esperantza pixkat guga,
geroztik jada ez dakit zenbat
gutun erantzun ditudan!
Zuk aberria maite zenuen
ta nik zu maite zintudan!

VII

Bakardadeak eragin dizkit
nik ez dakit zenbat kalte!
Nahiz urrun egon, jakin nigandik
ez zaude oso aparte.
Aspaldi hontan paperez eta
boligrafoz zaitut maite!
Sellorik gabe dijoan gutun
honen jabe egin zaite
ta gorde zazu egunen baten
berriro ikusi arte!

VIII

Zita goxo bat jarri dezagun
komeni den egunean.
Egunez ez da horren xamurra,
hobe gauéz ta "klabeán".
Hain guapo zauden txuri beltzeko
argazki xahar bat aldean,
esker eskuan lore sorta bat,
nerbiyo denak aidean!
Zure muxu ta besarkaden zain
Baionako kostaldean!

Usurbilgo Santixabeletako
XXXIII. Bertso Paper
Sariketaren irabazlea.
Imanol Zarautz, "Troia"

Ostiral honetan, jaietako argazkien proiektzioa Sutegin

Jai Batzordeak proposatuta, Argazki Lehiaketan parte hartzeko deia zabaldu da aurten. Herritarrek bidalitako argazkiak jaso ditugu NOAUA!n eta datorren asteko aldizkarian emango dugu irabazlearen izena ezagutzera. Argazki onenaren egileak 100 euro jasoko ditu.

Dena den, ostiral honetan, lehiaketako argazkiak nahiz NOAUA!ko langileok ateratako irudiak Sutegin ikus ahal izango dira. 20:00etan hasiko den proiektzioan, sarrera doan izango da.



Merkataritza indartzeko mahaia osatu da

Uztailearen 16an aurkeztuko dira plangintzaren lehen fasearen emaitzak

Herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plangintza bat landu eta herriko saltoki txikiak babestu eta indartzeko urratsak ematen ari da Usurbilgo Udala. Siadeco Ikerketa Elkartearen gidaritzapean, merkataritzako lan mahaia eratu da, zerbitzuen alorreko Usurbilgo establezimendueta-ko arduradunak elkarrizketatu dira eta herritarren erosketa ohiturak ezagutzeko ikerketa zabal bat egin da. Emaitzen berri emango da datorren astean Udaletxean egingo den bileran.

Orain arte egindako lanekin, herriko merkataritza eta ostalaritza sektorearen diagnostikoa osatu da eta bigarren fase

batean etorkizunean sektoreak eta Udalak elkarrekin egin beharreko bidea zehazteko urratsak emango dira.

Usurbilgo denda, taberna, jatetxe, ile apaindegi eta bestelako zerbitzu establezimendu txikietako ordezkari eta langilei zuzenduta, orain arteko lanaren emaitzak aurkezteko bilera egingo da datorren uztailearen 16an Usurbilgo Udaletxean eguerdiko 13:30etan eta bilera horretan parte hartzeko deia luzatu du Udalak.

Bilera garrantzitsua izango da, orain arte ezagunak ez ziren merkataritzaren egoerari buruzko datu berriak emango direlako eta plangintza honen diagnostiko fasea guztiz bukatua uzteko, bilerara bertaraten direnen iritziak eta proposamenak ere kontuan hartuko direlako.



MERKATARITZARI BURUZKO DATU BERRIAK EMANGO DIRA UZTAILAREN 16AN EGINGO DEN BILERAN.

Pikaola, goiz eta arratsalde zabalik

Uztailearen 1az geroztik, tamaina handiko gaiak uzteko Pikaolan (Kalezar) zabaldu den eremuan, ordu-tegi berria indarrean jarri du Udalak. Aurrerantzean, asteleheneetik larunbatera goiz eta arratsalde zabalik egongo da aipatu eremua; 9:00-13:30 artean eta bazkalostean, 16:00etik 20:30era. Bi langile kontratatu ditu Udalak, bertan egon daitezten. Gogoan izan,

Pikaolako gunea tamaina handiko gaiak uzteko balia daitekeela; hala nola, etxetresna elektrikoak, altzariak, lanetako hondakinak, inausketak... Aipatu materialak hara eramateaz gain, behar duenak bertatik ere zer hartua izango du. Etxean konpostajea egiten ari diren herritarrari organikoari nahasteko gai lehorrik falta bazaio, Pikaolatik har dezake.



TAMAINA HANDIKO GAIAK UZTEKO BALIATU DAITEKE PIKAOLAKO EREMUA.

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Kirol talde guztiek egin duten denboraldia goraipatu dute Kirol Patronatuak eta Udalak

Udalak eta Oiardo Kirol Patronatuak, herriko kirol taldeak zoriondu nahi dituzte. Denboraldia amaitu berri den honetan, batzuk eta besteek egindakoa goraipatu eta datorren ikasturterako animoak bidali nahi dizkiete. Udalak eta Kirol Patronatuak taldeei eskainitako hitzak dituzue ondorengoak.

JUDO, Usurbil JT

Izarrez betetako talde honek Usurbilgo izena European ere zabaldu du. Azken urteotan izandako emaitzak gazte-txoekin urte askotan egindako lanen emaitza da. Inguruko goi mailako kirolariek Usurbilera etorri nahi izaten dute beraien maila hobetzera, *chapeau!*

ESKUBALOIA, Usurbil KE

Usurbil KEk aurten berebiziko kirol emaitzak lortu ditu, neskak Espainiako Txapelketako azken fasera iritsi dira eta gizonetako lehenengo taldea mailaz igo da, zazpi urte behean pasa ondoren. Beste mailetan ere kontuan hartzekoak dira beraien txapelketetan. Lan handia egin behar da horrelako elkarte sendoa aurrera ateratzeko.

ESKUPILOTA-PALA, Pagazpe

Herriko pilotazaleak, Andatzpek eta Peña Pagolak bat eginda, urtero ari dira pilotariak sortzen eta sona handiko txapelketak antolatzen eta parte hartzen. Eskola Kirolean ere txukun aritu dira eta isileko lan horren ondorioz kirol emaitza hobegoak laster etorriko dira.

PILOTA-ERREBOTEA JOKO GARBIA, Zubietan PE

Zubietan errebote eta joko garbi pilota modalitate zaharrak eusten ari dira eta horrela jarraitzeko denon animoak eta baliabideak behar ditu.

FUTBOLA, Usurbil FT

Denboraldi hasierako duda-mudak gainditu ondoren, herriko neska mutilek futboleko aritzeko aukera izan dute. Futbolariak gauzak txukunago egiten



KIROL TALDEEK EGINDAKO LANA ZORIONDU NAHI DU UDALAK.

hasi dira eta denon babesa, laguntza eta animoekin aurrera joko dute.

GIMNASTIKA, Andatza

Serio eta txukun aritu dira, gero eta jendetsuagoa den taldea mutilengana ere hurbiltzeko saioak egin ditu.

IGERIKETA, Utike

Urte hauetan izandako kirol emaitzak hobek izan dira beste urteetakoak baino. Ea aurrerantzean talde sendoago bat osatzen den.

MENDIA, Andatza MT

Andatza MTk ohiko ateraldiak, mendi asteak eta Andatza eguna antolatzen ditu. Herriak horren beharra dauka.

URPEKARITZA, Beterri Sub

Beste urtetan bezala hor diraute bere eskaintzarekin. Ez da gutxi.

PIRAGUISMOA, Puntapax Kanoe

Azken bost urtetan herriaren eta inguruan uraren gainean Ori ibaiak ematen dituen aukerak eskaintzen jarraitu du.

TRIATLOIA, Baxurde Txiki TT

Talde berria izanagatik indarrean aritu da eta herri mailan inplikatzeko (herri krosa) gogoaz azaldu du, bejondeiela!

ARETO FUTBOLA, Makax

Kirol mailan ez ditu aurten lehen

bezainbateko lorpenak, baina estimatzen da ematen duten eskaintza.

TXIRRINDULARITZA,

Buruntzazpi Txirrindulari Eskola

Orain ez dela asko izandako dinamika berreskuratzeko jaioa. Gazteenetatik hasi eta txirrindularitzak ematen dituen modalitate gehienak jorrazteko asmoarekin; Buruntzalde mailan ere lanean.

Nabarmenezkoa, joan den abuztuaren herritar batek, Amador Granadok, Beijingeko Olinpiadetan parte hartzearena; ez da hori edozeinek egin dezakeena.

MENDIKO LASTERKETA

Udaberri honetan aurreneko aldiz aginagarrek antolatutako ekintza arrakastatsua gertatu zen; jarraipena izango duela-koan.

HERRI KIROLAK, Andatzpe-Aitzaga

Txalagarria benetan herritarren artean antolatutako aizkolari txapelketa. Badirudi jarraipena baduela. Gizon proba ere antolatu berria da. Hau ere eskertzekoa. Boloetan, tarteka antolatzen dira bolatokian txapelketak, herrian talde arduratsu bat sortzea nahi genuke.

“Usurbilgo herriaren alde egindako lanarengatik”, Usurbilgo Udalak eta Usurbilgo Kirol Patronatuak eskerrak eman nahi dizkiete talde denei.

Ikusgarria izan da Santixabel Pilota Txapelketa

Santixabeletako Pilota Txapelketan, Iriondo-Lukin bikotea nagusitu zen jubenil mailan. Azpeitia eta Irurtzungo gazteak erraz irabazi zuten finaleko partida, Burlatako Loban-Etxamendi bikoteari 22-4 gailendu eta gero.

Nagusien mailako partida orekatua goa izan zen. Aurtengo txapelak Lizasok (Villabona) eta Loiolak (Elgoibar) etxeratu dituzte. Lasarte-Oriako Aranburu-Elola bikoteak lan txukuna osatu zuen baina Lizaso eta

Loiola hobeto aritu ziren.

Finalean, urdaiazpiko bat zozkatatu zen eta Inaxio Arrutik irabazi zuen.

Imanol Zumeta, Idiazabalen garaile

Imanol Zumeta usurbildarrak Idiazabalgo I Pala Txapelketa irabazi berria du. Larralde bere bikotearekin, 25 eta 21 nagusitu zen finalean.

Lehendabiziko mailan, Larralde eta Zumetak 25 eta 21eko emaitzarekin irabazi zieten Berasategi eta Jexusi.



FINALETAKO JOKALARIAK, ANTOLATZAILEAK ETA UDAL ORDEZKARIAK, SARI BANAKETAKO EKITALDIA ETA GERO.

Asteburu honetan, Pirinioetara

Andatza Mendi Taldekoak Hecho bailarara doaz asteburu honetan. Huescako Jacetania eskualdean kokatzen den paraje zoragarri hau bisitatzeko aukera zabaldu nahi diete herritarrei.

Larunbat honetan irten eta Bisaurin mendia (2.670 m) igotzeko asmoa dute. Gabarditoko ostatuan lo egin, eta uztailearen 12an Petretxema gailurra (2.377 m) zapaldu eta Ibon de Acherito bisitatuko dute. Izen-ematea eta informazio gehiago jasotzeko bilerara, egun berean izango dira: uztaileak 8 asteazkena, iluntzeko 20:00etan Andatzako lokalean (Udaletxe ondoran).

Irteerara joan nahi duen orok 50 euro jarri beharko ditu (autobusa, ostatuan gaua pasatzea, afaria eta gosaria ordaintzeko).



IAZ, ANDATZAKOAK EGINDAKO IRTEERAREN ARGAZKIA.

Pala Txapelketa, Errasti-Galarragarentzat

Aginagako bikotea izan zen nagusi Pala Txapelketako finalean. Iñaki Errekondo eta Jon Arruti gogor saiatu ziren arren, txapelak Errasti-Galarragarentzat izan ziren.

Udaberrian hasi zen txapelketa hau giro ederrean burutu da eta finalak ere ikusgarriak izan ziren. Baina finalak ez ezik, bestelako partidak ere izan ziren ekainaren 30ean.

Nesken arteko partidak jokatu ziren eta, lehen aldiz, ezinduen arteko erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten frontoian bildu zirenek.



FINALEAN LEHIATU ZIREN BI BIKOTEAK, SARIK ESKUETAN DITUZTELA.

Autobus Orduategia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with bus routes between Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Lanegunetan. Columns include destination and departure times.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with bus routes between Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, and Jaiegunetan. Columns include destination and departure times.

LARUNBAT GAUETAN

Table with bus routes for Larunbat Gauetan from 00:00 to 06:00.

LARUNBAT GAUETAN

Table with bus routes for Larunbat Gauetan from 23:15 to 06:00.

Table with bus routes between Zarautz, Orio, Usurbil, and Donostia. Columns include destination and departure times.

00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
* Astegunetan eta Udako [09/06/22- 09/09/14] Larunbat, Igande eta Jaiegunetan

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Table with bus routes between Irteera Usurbil and Irteera Astigarraga. Columns include destination and departure times.

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

Table with bus routes between Usurbil and Urnieta. Columns include destination and departure times.

Table with bus routes between Urnieta and Usurbil. Columns include destination and departure times.

TSST autobusak ZUBIETA • DONOSTIA

Table with bus routes between Zubieta and Donostia. Columns include destination and departure times.

BUS-TAXI Astalehenetik Ostiralera 989 630 64 35 96*

Table with bus routes for BUS-TAXI. Columns include destination and departure times.

Tren Orduategia

Agenda!

Uztailak 8 asteazkena

- Uztailak 11-12, Pirinioetara irteera, Andatza Mendi Elkartarekin. Izen-ematea eta bilera, uztailearen 8an, Andatzako lokalean, 20:00etan.

Uztailak 10 ostirala

- 20:00etan, Santixabel jaietako argazkien emanaldia Sutegin.

Uztailak 11 larunbata

- Errausketaren aurkako jaia Zubietan.

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 9, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 10, ostirala

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 11, larunbata

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Uztailak 12, igandea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Uztailak 13, astelehena

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Uztailak 14, asteartea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Uztailak 15, asteazkena

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 16, osteguna

Gil, Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 17, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 18, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Uztailak 19, igandea

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietakalea, 7 Hernani 943 552 941

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Errausketaren aurkako jaia egingo da larunbatean Zubietan

Sei hilabeteko lana eman badu ere, azkenean bildu dituzte beharrezkoak ziren sinadurak. Era honetan, Eusko Legebiltzarrean Hondakinen Legea eztabaidatu ahal izango da. 30.000 sinadura bildu behar ziren eta Errausketaren Kontrako Gipuzkoako Plataformen Koordinakundeak 35.000 bildu ditu. Egindakoa ospatzeko jaia antolatu dute. Larunbat honetan, Zubietan.

Errausketari uko egin eta zabor organikoen gaikako bilketa eragingarria bultzatu nahi dute, Usurbilgo atez atekoa eredutzat hartuz. Legea ere alde dutela diote Errausketaren Kontrako Plataformek, agintariak "zabor organikoen gaikako bilketa" agindu zutelako 2001. urtean.

Plataformakoek aurreko astean adierazi zuten, "garaipen bat da 30.000 sinadura bildu eta Legebiltzarrean aurkeztea. Garaipena den bezala Usurbilen, atez ateko bilketaren ondorioz, hondakinen %23a birziklatzetik %81a birziklatzera pasatzea, baina errausketaren aurkako borrokak jarraitu beharra du. Gipuzkoa osoko herri guztietan errausteari uko egitea lortu behar dugu, atez atekoa herri guztietara zabalduz".

Artzabaletara mendi martxa

Dena ez da lana izango. Sinadurak biltzen egindako lana eskertzeko, festa



AURREKO ASTEAN EGIN ZUTEN
PRENTSAURREKOAN IRAGARRI ZEN
ZUBIETAKO FESTA.

antolatu dute larunbat honetarako, hilak 11, Zubietan.

Artzabaletara martxa egingo da goiz partean. Eta ondoren, jai giroan murgilduko dira uztailearen 11n Zubietara hurbiltzen direnak. Haur, gazte eta nagusientzat egokia den egitaraua prestatu dute.

ERRAUSKETAREN AURKAKO JAIA UZTAILAK 11 LARUNBATA

- 10:00 Martxa Artzabaletara.
- 12:00 Txan magoa.
- 13:00 Bertsolariak eta margolariak.
- 14:30 Herri bazkaria+Gartxot. Bazkaria, 15 euro. Izen-emateko orriak ohiko tokietan jarriko dira.
- 17:00 Herrien arteko herri kirolak.
- 18:00 Ekitaldia. Dantzariak, Tapia.
- 20:00 Erromeria.
- 22:00 Kontzertua: Arrautz Ustelak, I Can't Explain, Illarra Dj.
- Egun osoan, Txosnak, erakusketak, bideo proiektzioak.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. 943 362 725

ETXEBIZITZA

- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisia salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berria eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitua batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzekoa. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak.

- 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska eskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizek haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko...

Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.

- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Racler markako denda-karroa salgai (remolke kanpina). Oso egoera onean eta garajea egondakoa. 2 ohe 1,90x1,50, baka, ordezko gurpila, Jockey gurpila eta arkoia ohe azpian. Ekonomikoa. 628652334.
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Amets! Uztailearen 8an, 6 urte egin dituzu. Muxu handi handi bat zure famili guztiaren partetik eta bereziki Maddiren partez.



Zorionak Nahia, ekainaren 10ean egin zenuen 8 urte. Muxu potolo bat Maddiren partez eta besarka bat etxeko eta lagun guztien partez. Berandutu egin da baina, seguru datoren urtean ez zaigula pasako.



Zorionak Iraia! Iraia Almandozek bi urte beteko ditu uztailearen 12an. Ondo pasa eta muxu potolo bat etxekoan partetik

ERRAUSKETAREN ERAGINA INGURUAN

Linfoma No-hodgkin (10km-arte)
 Ehun bigunetan minbizia edo sarkomak (2km-arte)
 Fetuaren mutazio eta malformazioak (5km-arte)
 Bizkarrezur bifidoa eta bihotz arazoak (5km-arte)
 Kantzer ezberdinak (16Km-arte)
 Asma arazoak (10km-arte)
 Leuzemia eta haurren minbizia (7,5km-arte)



ARRISKU GORENEKO INGURUA: 5 Km-arte

USURBIL, ANDOAIN, URNIETA, LASARTE-ORIA, HERNANI, IGARA-IBAETA, ANTIGUO, BERIO, IGELDO...

BIZTANLEAK | 115.488

ARRISKU ALTUKUKO INGURUA: (5-8 km)

ADUNA, ZIZURKIL, ORIO, ASTIGARRAGA DONOSTI ERDIALDEA, AMARA, GROS, LOIOLA, MARTUTENE

BIZTANLEAK | 59.323

ARRISKU ERTAINEKO INGURUA: (8-14 km)

AMASA, BILLABONA, BERROBI, BELAUNTZA ELDUAIN, IBARRA, TOLOSA, HERNIALDE ANOETA, IRURA, ASTEASU, LARRAUL ALKIZA, AIA, ZARAUTZ, GETARIA, ARANO, ERRETERIA, PASAIA, LEZO, OIARTZUN, BIDEBIETA, INTXAURRONDO ETA ALTZA-HERRERA

BIZTANLEAK | 206.836

GUZTIRA | 381.647



EDERTU ZAITEZ!



L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

ileapaindegi onenetan

Loli Lizarralde

Solariuma

• ileapaindegia • Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5-B ☎ 943 361 971



Bixen
ileapaindegia

Solariuma
Depilazioa

nagusia 10, Usurbil 943 37 28 44



Agate
ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilata

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lanizen ditugu

WELLA
PROFESSIONAL

Alissa Bratti

INTZAWELLA
ILEAPAINDEGI PROFESSIONALS

Egurditan irekia! Nagusia 8, 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

Biteleen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak
Zutikako eta Etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4 ☎ 943 361 981